

## **GIPUZKOAKO GENERO INDARKERIAREN KOORDINAZIORAKO PROBINTZIA BATZORDEAREN BEDERATZIGARREN BILERAREN AKTA**

DATA: 2021eko azaroaren 24an

TOKIA: GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO ERABILERA ANITZEKO GELA – BEHEKO  
SOLAIRUA- SAN MARTIN 41. AURREZ AURREKOA

### **BERTARATUAK**

-Juana Maria Unanue Arratibel andreak, Genero Indarkeriaren Koordinaziorako Probintzia Batzordearen lehendakaria eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko hirugarren sekzioko lehendakaria.

- Aranzazu Menendez Vazquez andrea, Gipuzkoako Justizia Administrazioaren idazkari koordinatzailea.

-Idoia Perez Araiz Andrea, Gipuzkoako Biktimaren arretarako zerbitzuko koordinatzailea eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko letradua.

-Belen Larrion Kortabarria andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Haurren Babesa eta Gizarte Inklusioko Zuzendaria.

-Aurora Gabino Amantegui andrea, Donostiako Genero Indarkeriaren arloko Epaitegiko Magistratua.

-Maria Jose Lasa Dorronsoro andrea, Eibarko Udaleko Gizarte Zerbitzuak

-Maria Angeles Fernández andrea, Hezkuntza

- Enrique Vicente Crespo jauna, Polizia Nazionalaren Donostiako Polizia Judizialeko Brigadako inspektore burua.

-Pablo Cobo jauna, Guardia Zibilaren Polizia Judizialeko Unitate Organikoko burua Gipuzkoan.

## **GAI ZERRENDA**

1.- Lantaldeek beren bileretan egindako jardueraren berri ematea.

2.- Gipuzkoan Zurekin ezartzeari buruzko informazioa.

3.- Beste gai interesgarri batzuk.

**1.- Lantaldeek egindako jarduera.** Juana Maria Unanue Arratibel andrea, Genero Indarkeriaren Koordinaziorako Probintzia Batzordearen lehendakariak, azken hilabeteetan lantaldeak egindako jardueraren laburpena egin zuen. Lehenik eta behin, BJKNren Indarkeriaren Behatokiaren webgunean Batzordeak egindako bi gidak sartzearen berri eman zion taldeari, eta bere poztasuna azaldu zien bileran zeudenei.

Ondoren, jardunbide egokien gida aipatu zuen, hura egiteari dagokionez. Lehen ideia operadore guztientzat zerbait orokorra egitea zela esan zuen. Geroago, esan zuen, ohartu ginela operadore bakoitzarentzat bazeudela gida oso onak eta amalgama bat egiteak ez zuela funtzionatuko. Horregatik, arlo judizialean kokatuko garela. Bestalde, Kontseiluak dagoeneko bat prestatu du adierazpenaren arloan. Baina uste dugu ondo legokeela epaitegi batean egin daitezkeen gainerako praktiketara ere hedatzea, eta norabide horretan lanean hasi gara.

Eta gaineratu zuen: kontuan hartu ditugu zenbait alderdi, hala nola eraikinetarako sarbideak, egoerak gertatzen ari direlako, eta epaitegiaren barruan ere bai; banandu egin beharko lirateke, biktimak eta biktimagileak leku desberdinetatik sartzea eta elkar ez ikustea.

Bista-aretoen gaia ere planteatu dugu: nola dauden areto horiek, ikusi non egon behar duten biktimek. Batzuetan, biktima desorientatuta egoten da, eta uste dugu interesgarria dela funtzionarioak informazioa ematea eginbideak testuinguruan jartzeko, hitz batean, lasaitzeko eta, adibidez, itzarote-denboren berri emateko. Baita egin ditugun liburuxkak ere, badaudela eta gertatzen ari dena ulertzen lagun diezaieketela jakinaraztea.

Gai horri dagokionez Atotxako Epaitegietan dagoen Protokoloa aipatu zuen, non jarraibide horiek integratzen diren eta informazio pertsonalizatua integratu, horretan hasi gara lanean.

Bestalde, laguntzea edo konpainia egitearen gaia aipatu zuen eta Zurekin Gipuzkoan hasten dela jakinarazi zuen. (Idoia Perezekin komentatu dugu Aldundiarekin eta Gipuzkoako beste operadore batzuekin mintegi bat egitea, laburpen bat egitea).

Jardunbide egokiei dagokienez, abian jartzen hasi behar da, eta adierazi zuen informazioa ematea oso garrantzitsua dela. Gai horri dagokionez, idazkari koordinatzaileak, Menéndez andreak, esan zuen abokatuei eskatu behar zaiela ea jarraibide edo protokoloren bat duten sarrera horretarako. Eta haiekin harremanetan jartzeko konpromisoa hartzen duela gaineratu zuen.

## **2.- Gipuzkoan Zurekin ezartzeari buruzko informazioa.**

Laguntzea edo konpainia egiteari dagokionez, Donostiako Genero Indarkeriaren arloko Epaitegiko magistratuak, Gabino andreak, esan zuen biktima ertzainarekin etortzen dela, eta hark sarreran ematen diola informazioa. Guk hitzorduan informatzen badugu, barrualdetik Biktimen Aretora laguntzen diegu. Gaineratu zuenez, eraberritu ondoren egun dagoen judizio-aretoa zoragarria da. Harro gaude eta esan digutenez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko ikuskaritzaz ari da, ez dago horrelako beste bat. Gabino andreak esan zuen asko kostatu dela, baina leku duina dela, instalazioak oso onak direla, lehen zegoenak lotsa ematen zuela. Haurrentzako jolasak ere badaudela adierazi du. Orain funtzionarioak dira laguntza-lan horiek guztiak egiten dituztenak, eta jakin nahiko nuke ea Zurekin lan horretatik aske utziko dituen.

Informazioaren gaien laguntzeari dagokionez, esan zuen oso protokolizatuta dagoela, eta gaineratu zuen biktima itxarongelan uzten dela, indarkeriaren arloko abokatuari deitzen zaiola eta hark ematen diola informazioa, baita bere abokatuak ere, baldin badauka.

Justizia Administrazioako idazkari koordinatzaileak, Menéndez andreak, ohar bat egin zuen eta esan zuen Tolosan ere egokitu dela judizio-aretoa. Bergara konplexua dela dituen neurriengatik. Asmoa da indarkeriaren arloko epaitegi guztiak egokitzea, ahal den neurrian.

Salei dagokienez, Genero Indarkeriaren Koordinaziorako Batzorde Probintzialeko presidentek, Unanue andreak, esan zuen kontua dela sala estandar bat egitea, probintziako gainerako epaitegietan nolakoa izan behar den zehazteko.

Gabino andreak, Donostiako Genero Indarkeriaren arloko Epaitegiko magistratuak, laguntzearen gaiari heldu zion berriro, eta zehaztu zuen uste zuela Zurekin egingo zuela.

Bestalde, Gipuzkoako Biktimari Laguntzeko Zerbitzuko letradu koordinatzailea eta Abokatuen Elkargoko abokatuak, Pérez andreak, azaldu zuen Zurekin programa ez dela larrialdiko laguntza bat, ez dagoela larrialdi edo guardia baterako konfiguratuta, esan zuen bere metodologia ez dela hori. Laguntza programatua da. Donostian bi mutil daude, bat prestakuntzan, eta hiru eguneko epea dago eskaera egiteko. Zerbitzu hori Bilbon aztertu da. Ez da salaketa bat egin berri duen emakume batentzat, Zurekin esku hartzeko plan programatua da, eta laguntza-premi batzuei erantzuten die. Oraindik baliabide materialak falta dira, gehitu zuen. Zurekin laguntza bat da, ez bakarrik emakumeentzat, kontzeptu zabalagoa da, sexu-erasoak ere barne hartzen ditu, eta ez bakarrik emakumeen aurka egindakoak, baita hurrei egindakoak ere ..., pertsona horiei laguntzea da. Eta azpimarratu behar da borondatezko zerbitzua dela, biktimak uko egin diezaiokeela.

Bideratzeari dagokionez, esan zuen beti egon behar dela protokoloak horretarako adierazten duen denbora-tartea. Helburua da laguntzea, espazioa eta hizkera juridikoa ezagut ditzaten, epaiketa bat, epaiketa-areto bat ... ikus dezaten saiatzen dira, eta hori Zurekinen laguntzaren parte da. Egiatzatu da horrela biktimak estres gutxiago duela eta eginbideak askoz hobeto egiten direla eta ez dela hainbeste biktimizatzen. Eta azpimarratu zuen Zurekin ez dela guardia-zerbitzua. Hitzarmena aurtengo abenduaren 31ra artekoa da. Gero ikusiko dugu.

Asmoa da informazio-jardunaldi bat antolatzea operadore guztiekin. Eguna zehaztu behar dugu. Donostiako Genero Indarkeriaren arloko Epaitegiko Magistratuak, Gabino andreak esan zuen informazio laburtua bidal diezaiekeela lankideei.

Bestalde, Gabino andreak esan zuen biktimaren lehen deklaraziotik aurrera eska daitekeela. Gipuzkoako Biktimari Laguntzeko Zerbitzuko abokatu koordinatzaileak esan zuen BLZ deribazioak egiten ari dela dagoeneko. Era berean, jakinarazi zuen epaitegian uler daitekeela garrantzitsua dela eta bera dela Zurekinera behar adina denborarekin ofizioa bidaltzen duena, eta Zurekin biktimarekin harremanetan jartzen dela eta eskaintza egiten diola, ez dela lehenengo deklarazioaren zain egon behar, gaineratu zuen.

Fernández andreak, Hezkuntzakoak, galdetu zuen ea laguntza hori sexu-erasoen biktima adingabeentzat ere baden, eta oso interesgarria litzatekeela biktima horiei zerbitzu hori badagoela jakinaraztea.

Gipuzkoako Biktimari Laguntzeko Zerbitzuko letradu koordinatzaileak baietz erantzun zion.

Orain arte, Gipuzkoako Genero Indarkeriaren Koordinaziorako Batzorde Probintzialeko lehendakariak, Unanue andreak, esan zuen Auzitegian laguntza ematea Aldundiak, gizarte-laguntzaileak, Ertzaintzak, udaltzaingoak eta abarrek egiten dutela. Hori izan da orain arte gertatu dena. Baina esan zuen laguntza fisikoa dela, ez psikologikoa.

Gipuzkoako Biktimari Laguntzeko Zerbitzuko letradu koordinatzaileak, Pérez andreak azpimarratu zuen oso zaila dela guardia-egoera batean gaiari heltzea, eta hor unean uneko emozio-euspina egiten dela, denbora eta espazioa behar direla.

Horrekin, Gabino andreari adierazi zion, lehen deklarazioa egin aurretik Zurekinera dei daitekeela, epaitegira joan aurretik, bideratzea eta lehen deklarazioaren arteko epe batekin, eta, orduan, laguntze hori egin daitekeela. Hau da, esan zuen deklarazioa programatzean bideratze hori egiten saia daitekeela.

Laburbilduz, Genero Indarkeriaren Koordinaziorako Batzorde Probintzialeko presidentek, Unanue andreak, esan zuen bilera bat egin behar dela operadoreei informazio horren berri emateko.

Bideokonferentzien gaia ere aipatu zuen. Gabino andreak erantzun zuen batzuetan erabiltzen zirela eta beste batzuetan ez. Bionboak ere erabiltzen ditugu, esan zuen. Biktima eta

erasotzailea gai zibilean bakarrik egon daitezkeela batera, familian, eta bionboak erabiltzen direla.

Genero Indarkeriaren Koordinaziorako Batzorde Probintzialeko lehendakariak, Unanue andreak, esan zuen Auzitegian, zehazki Hirugarren Atalean, gai horietan erantzuna “aukeran” dela, baina orokorrean bideokonferentzia bidez izaten dela, batzuetan akusatua dela eta beste batzuetan biktima. Hemen toki asko dago, gaineratu zuen. Jendea askotan babesgabe etortzen da. Gu egoera, adostasunak eta abar azaltzen saiatzen gara.

Azkenik, Genero Indarkeriaren Koordinaziorako Batzorde Probintzialeko presidentea den Unanue andreak Gabino andreari eskatu zion probintziako beste epaile batzuekin harremanetan jartzeko, proiektu honetan parte har dezaten.

Genero Indarkeriaren Koordinaziorako Batzorde Probintzialeko presidente Unanue andreak Ertzaintzaren EVA programa berria ere aipatu zuen, egoera horiei aurre egiteko moduari buruzkoa.

**Unanue andreak**, Genero Indarkeriaren Koordinaziorako Probintzia Batzordeko lehendakariak, lan taldeen hurrengo bileretarako egunak ezarri zituen, **2022ko urtarrilaren 25ean eta otsailaren 22an** eta Genero Indarkeriaren Koordinaziorako Probintzia Batzordearen bilerarako eguna ezarri gabe geratu zen.

Beste aztergairik ez dagoenez, bilera 17:08an amaitu da, eta bertan jasotako oharrekin akta hau idatzi da bilerara bertaratutako jaun-andreei bidaltzeko.